

BALIABIDEAK

Gure proiektua arrakastaz aurrera atera ahal izateko, hainbat baliabide beharko ditugu. Taldeko kideetako batek **lokal** bat du, lokalaren jabeekin alokairua prezio ekonomiko bat adostu dugu lehendabiziko urterako non gure APParen atzean dagoen guztia landuko digun, eta biltegiaren kasuan, gure markak diseinatutako arropetarako erabiliko da. Baliabide fisikoei dagokienez, zenbait gailu elektroniko beharko ditugu eta bestealde Internetan edukitzeko kontratu bat sinatu beharko dugu hornitzalaren batekin, hala nola ordenagailu bat eta telefono mugikor bat. Bestalde, gure ideia **patentatu** beharko dugu eta hori izago da gure baliabide intelektuala.

Giza baliabideei dagokienez, softwarea erabiltzen eta kontrolatzen dakien norbait kontratatu beharko dugu, APPak azkar eta arin funtziona dezan, eta uneren batean arazoren bat balego, konpontzailea izaten jakin dezan eta lehenbailehen erantzun bat emateko gai izan dadin. Horretaz gain, **bazkide bakoitzak rol desberdin bat** izango du enpresa honetan. Sara enpresako publizitate eta marketing guztia kontrolatuko du. Iraia, berriz, biltegiko arduraduna izango da. Eiderrek enpresako finantza guztiak gauzatuko ditu. Bestalde, Luna giza baliabideen burua izango da. Azkenik, Uxue enpresako produktuak diseinatuko ditu, ondoren behar bezela exekutatu ahal izateko, 2 modista kontratatuko ditugu.

Negozia martxan jartzeko haserako diru aportazio bat egin beharko dugu. Alde batetik, gure aurrezkiak erabiliko ditugu horretarako baina seguraski nahikoak izango ez direnez kreditu linea bat eskatu beharko dugu beharren arabera diru horrekin kontatzeko. Dirua beharko dugu eskaini beharreko arropak erosteko, ordeigailua eta mugikorra erosteko, hasierako publizitatea egin ahal izateko..

